

Espainolak eta euskaldunak

Euskaldunon Egunkaria, 1994-10-25: 2.

Aspaldiko leloa da, baina ez dugu ikasten. Zenbat aldiz esnatu behar gaituzte ernai irauteko? Bart ikusi eta entzun genuen berriz arerioaren hitza. Boto batzu gehiago atera zituen bezain laster harrotu ziren eskuineko mutur beltzetik: hau hasiera besterik ez dela, nazionalistarik gabeko gobernu euskalduna osatzera helduko direla, euskaldunon Jaurlaritza areriorik okerrena balitzan; aho beroko jai hartan telebistako mintzalaria ere kutsatua zela zirudien, zeren eta familiako poza balitz bezala hasi ziren konfidantzan hika, telefono pribatutik bereartekoak kontatzen. Oso bitxia izan zen UAko bost postuak sei izan ziren ezuste pozgarri hura. Eta beste muturrean, ezkerreko galtzaileak berak, iragan berri zen euskaldunen Jaurlaritzan elkarrekin nagusi izan zirenetako bat baino gehiago, pozik, alajaina, Espainiaren aldeko gorriak zorionetan zeudela, zeren partaide berriak: Izquierda Unida eta Unión Alavesa, Partido Popular, denak bat jarriaz gero, ia gehiengoa zutela! Hara non kokatzen diren isilik edukitzen duten poz espainola, euskaldunaganako gorroto handi zahar hori! Bitartean, noski, eskuinaren aho beltzak, berriz guda piztuko luketen horietakoak, pozik gainezka. Eta gu, etxean oraindik nagusi txiki, zatitu eta lelo, berriz edozer gauza egiteko prest.